

Ezberdina eta mundiala!



Herenegun jokatu omen genuen mundiala. Telebistak gorritz tindatzerako unean kaleak hustu omen ziren, hondartzan zeudenak irratia belarrian, eta tabernan, berriz, koadrila algarak eta jaiegun giroa, pantailari so, herenegun jokatu omen genuen mundiala. Lanean egotea ere egokitu zitzaion baten bati, baina, interneten mirariak; zuzenean ikusteko aukerarik ez izan arren, lagunen batek txat edo korreetik jakinarazi zion, herenegun jokatu omen baikenuen mundiala... Udako ekintza nagusia izango omen diren

hauek, futbolak eta gurea ez den selekzioak, geraraziko omen dute hiria.

Egia esan, nik neuk ere partida ikusi nuen. Futbola betidanik gustatu izan zait, eta Munduko Kopak futbolik onena ikusteko aukera eskaini beharko luke, askotan hala ez bada ere. Lanak ere horretarako tarteak eskaintzen dit. Talderen batekin identifikatzeko beharra dugula eta, hurbilen ditugunekin batzen gara, eta Realean ibilitako tolosarra hurbilenetan hurbilen. Aitak Argentina-
ra egindako bidaiari bertako selekzioaren elastikoa ere ekarri zidan, eta haiek duten kutxu erakargarriaz kutsatua sentitzen naiz askotan. Zer esanik ez, aurrekontu eskasena dutenekin ere, haien herrialde txikiak duintasunez ordezkatzera joan diren taldeekin... Baina, futbolaz haraindi bizitzarik badelako,

uda hau ez da bakarrik futbolaren eraginez mundiala izango!

Uda udakoak dira autoa ipurzuloraino beteta familia osoa atsedean bila joaten direnak, urrun joan gabe ere hondartzan kiskaltzen diren karramarro gorrixkak, jazz kontzerturik onena ikustearren dirutza ordaintzeko prest daudenak, edota jai giro eta hiriko festen babesean mozkorrik itzelenaren konturara, alkoholez aski eta sobera, txahala eginez dabiltzanak izkinetan... uda udako ondorioak izaten dira. Uda bakoitza berezi egiten dutenak, berriz, oporraldian egindako lagunak, parrandan sortutako harremanak, pertsonak eta haiekin izandako esperientziak errepika ezinak dira.

Baina, bada uda beste era batean igarotzea erabakitzen duenik ere. Edo ho-

beki esanda, udaz bestean moduan gozatzeaz gain, beste etekin bat lortzen eta eskaintzen dutenak. Uda kolore gorritz tindatzeaz gain, esperientzia, oroitzapen eta elkartasunez blaitzen dutenak. Futbolari so egoteaz gain, haien denbora musu truk eskaintzeko prest daude. Inongo hautatzailearen zerrendatan sartu gabe, haien kabuz laguntzea erabakia hartu dute. Arerioa garaitu beharrean, elkarlanean amets bat eraiki nahi dute, gure kale eta bazterrak auzolandegien bitartez berriztatzen dituzte. Inongo soldata, prima edota irudi eskubideren eskean egon gabe, ume eta gaztetxo talde batekin heziketa lanean aberasteko prest daude. Norbere herri eta kultura biziz ere, gainontzeko herrietako kideei harrera egiten diete, Saharatik etortzen diren umeak haien etxeetan hartzen dituzte. Uda ezberdina eta mundiala bizitzeko eta biziarazteko prest daude! Horretarako prest al gaude gu ere bai?